

SELEQTIA marka berri egin da hamargarren urteurrenean, eta gourmet mundua supermerkatu ekarri du

**EROSKI-K GOURMET GAMA BERRIA SORTU DU,
BASQUE CULINARY CENTERREN ESKUTIK**

- **EROSKI eta Basque Culinary Centerrek akordio bat dute SELEQTIAren produktuen kalitatea Basque Culinary Centerri loturiko profesionalak ebaluatzeko.**
- **EROSKI SELEQTIAk 177 erreferentzia ditu janarien eta freskoen kategorietan; besteren artean, Espainiako 27 elikagai, jatorri izenak eta adierazpen geografiko babestuak dituztenak**
- **Kooperatibak %10etik gora igo ditu SELEQTIAren 2016ko salmentak**

Donostia, 2016ko azaroaren 30a.- [EROSKI](#)ren SELEQTIA markak, gourmet produktuetan espezializatuta dagoenak, hamargarren urteurrena bete du, eta horrekin batera, bere erreferentzietan berritasunak egiteari heldu dio; hala, bere irudia modernizatu eta produktuen kalitate sentzoriala hobetu du, [Basque Culinary Centerrekin](#) sinatutako akordioari esker.

"Kontsumitzaileak gero eta gourmet janari gehiago eskatzen du azkenaldian. Hori dela medio igo da aurten SELEQTIA marka propioa %10etik gora. Bezeroak, gaur egun, premium produktuak nahi izaten ditu egun berezietan; prest izaten da gehixeago ordaintzeko oliba olio bikain bategatik, gosaritarako gogoko zerealengatik edo paella ezin hobea egiteko erabiltzen duen arrozagatik", esan du EROSKI Markako zuzendariak, Ainhoa Oyarbidek.

Gaur, ekitaldia egin du kooperatibak Basque Culinary Centerren egoitzan, Donostian, eta bertan, EROSKI SELEQTIAren berritasunak ezagutarazi ditu 150 Bezero Bazkide baino gehiagoren aurrean. Bezero horiek bertatik bertara ikusi eta dastatu dute gama berriua.

Zentzumenei dagokien kalitatea, Basque Culinary Centerri esker hobetua

EROSKI eta Basque Culinary Centerrek lankidetzan akordio bat egin dute, SELEQTIA produktuen kalitatea ebaluatzeko Basque Culinary Centerri lotuta dauden profesional adituen dastatzeekin.

"Dastatzeetan, chefek puntuazioa jartzen diote zenbait ezaugarriren kalitateari, hala nola testurari, zaporeari, lurrinari, itxurari eta osagaiei. Txostenetan,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

zentzumenei dagokien puntuazio globala agertzen dute, eta adierazten ea produktua egokia den EROSKI SELEQTIA gamakoa izateko edo berriz formulatu eta berriz dastatzekoa ote den kalitate sentsorialik onena bermatzeko", azaldu dute Basque Culinary Centerreko I+G zentrokoek.

"Gure produktuen balorazio sentsoriala egitea funtsezkoa da EROSKI SELEQTIAarekin identifikatzen dugun aparteko kalitatea, bikaintasuna eta maila gorena bermatzeko. Gure ustez, Basque Culinary Center, gastronomiari loturiko bere jakintzarekin, bere eskarmentuarekin eta I+G garapenarekin, balio erantsi garrantzitsua da. Dastatutako eta onartutako produktuek Basque Culinary Centerren logoa daramate ontzian inprimatuta. Zigilu hori pixkanaka ari da sartzen, EROSKI SELEQTIA produktuak ziurtagiriak irabazi ahala eta erreferentzien ontziak berritzen eta modernizatzen goazen bezala", esan du EROSKI Markaren zuzendariak.

Berrikuntzaren alde

EROSKI berritasunak sartu ditu aurten SELEQTIAren sortan, bere berrikuntzaren aldeko apustuan; besteren artean, pizza freskoa eta izoztua, pasta lehor eta fresko beteak, Kantauriko sardina, sagar txigorki txikiak eta postre gozoetan. *"Urtez urte produktu berriak eskaintzearen alde dihardugu, gure 'gourmet' hornitzaileekin. Honelako berritasunak ditugu: hostopil txirikordak, izokinak eta arrain puddinga. Bezeroek oso ondo hartzen dituzte; hala erakusten dute iritzia ematen dutenean gure marka propioaren parte hartze programaren bitartez"* azaldu du EROSKI Markaren zuzendariak.

EROSKIren marka propioko gainerako produktuek bezala, SELEQTIA gamako produktuek ez dakarte transgenikorik, ez kontserbagarri eta koloragarri artifizialik, ez landare-gantz partzialki hidrogenaturik, eta ontziaren aurrealdean semaforo nutrizionala dakarte, hots, nutrizio kalitatearen arloan dagoen etiketarik aurreratuen eta kontsumitzailearenganako gardenena.

EROSKI SELEQTIAri buruz

EROSKI SELEQTIAk kalitate goreneko produktuen sorta zabala biltzen du; sorta horretako produktuek, lurrin eta zapore ezaugarri apartak dituzte, eta, gainera, oso itxura dotorea dute. Kooperatibak, gaur egun, 170 produktu ditu gourmet markaren barnean, eta horietatik 27k jatorri izenak eta adierazpen geografiko babestuak dituzte. Eskualde askotakoak dira, hala nola Euskal Autonomia Erkidegokoak, Nafarroakoak, Kataluniakoak, Andaluziakoak, Gaztela Mantxakoak, Alacantekoak eta Italiako Modenakoak eta Grana Padanokoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)